## Lazkao

# Ur presaren berrikuntzak

### Hainbat onura ekarriko dituzte egindako lanek

MARTXOAREN 8an Agauntza ibaian egindako lanen inaugurazioa izan zen. Lanak egin aurretik Agauntza ibaiak herrigunea zeharkatzean 3,5 metroko presa zuen. Ondorioz, uholdea izaten zenean, urak gainezka egiten zuen eta ibaiko faunarentzat ere oztopoa zen. Urak gainezka ez egiteko, presaren garaiera 0,8 metro jaitsi eta arrainentzat pasabide bat egin zen. Horrek sigi-saga eran jarritako 10 salto txiki ditu. Baina lanak ez ziren presa zaharrean soilik egin. Presatik gora ibaiaren bi aldeetako hormak sendotu ziren, bi aldeetan harrilubeta bana egin ziren ibaiko faunaren babesleku izan dadin, eta gainean landaketak egin ziren. Beste lau presa ere egin ziren. Ibaiaren egokitze lanen aurrekontua 91 milioikoa izan zen: %75 Eusko Jaurlaritzak jarri zuen eta %25 Diputazioak.


GOIERRITARRA

■■■ Lazkaoko presan egindako berrikuntzak.

## Laburrean

**■ Emilio Sanchez Sydneyn**

Ekain Arruabarrena eta Emilio Sanchezek ezindu fisiko eta psikikoen estatuko txapelketa irabazi zuten Asturiasen. Ekainek errepideko proba eta erlojupekoa irabazi zituen, eta Emiliok erlupekoa irabazi eta errepidekoan bigarren izan zen. Emiliok Sydneyko Paralinpiar Jokoetara joateko aukera izan du, eta Ekainek ere bertara joateko eskubidea ederki merezia bazuen ere, ez zioten aukera hori eman.

**■ 500 kiloko patata tortila!**

Apirilaren 30ean Beasaingo San Ignazio koadrilakoek, Esteban Atxa zegamarraren ardurapean, 500 kiloko tortila egin zuten Lazkaon. Estebanen ekimen horren helburua lazkaotarrei berari egindako harrera eskertzea izan zen, eta horretarako bere oilategiko 3.500 arrautza, 500 kilo patata, 100 kilo tipula, 125 litro olio eta 900 gramo gatz erabili behar izan ziren. Egin ondoren, dohainik zerbitzatu zen herritar guztientzat.

## I. Garagardo festa




■ Maiatzaren 18, 19, 20 eta 21ean I. Garagardo Festa ospatu zen, herriko gazteen ekimenez, Lazkaoko plazako frontoian. 15 garagardo mota, saltxitxak eta brotxetak dastatzeko aukera izan zen egun horietan. Herriko gazteen ekimen horren helburua II. Gazte Festa antolatzeko dirua lortzea izan zen, baina, Garagardo Festaren arrakasta ikusita, baliteke hori ere urtero egiten hastea. Izan ere, erruz eta gogoz edan zen garagardoa Lazkaon.

Etxe - Zuri
Sagardotegia



- Sagardo denboralditik kanpo ere irekita.
- Sagardoa urte guztian txotxetik
- Bataio, Jaunartze, Lagunarteko otordu, despedida etab.

ETXE-ZURI Baserria Tel.: 943 88 20 49 OLABERRIA

Bittor JATETXEA
○ Ezkontzak ○ Jaunartzeak ○
○ Eguneroko menuak ○
✆ 943 18 00 33/ 18 00 84 ATAUN (S. Martin)

ondoeta, S.L.
201 Industrialdea
18. partzela
ALTZAITUZKO ATEAK
AUTOMATIKOAK, BASKULANTEAK
MARATILDUNAK, STANDARRAK, ETA ABAR.
Tel.: 943 88 31 02 - Faxa: 943 88 08 72 20212 OLABERRIA

GARAGE ALDANONDO




PNEUMATIKOAK
LERROKATZEAK
OLIOAK
HONDAR-TXORROTADAK
Tel.: 943 18 72 57
IDIAZABAL

X A X O
● KAMISETEN ESTANPAZIOA
● FOTOKOPIAK KOLORETAN
San Inazio, 5 - behea
BEASAIN
✆ 943 88 35 81
Faxa: 943 88 63 55

You'll Speak !!!
INGELERAZ
hitz egingo duzu !!
Camden ENGLISH
Bideluze, 2 - 1. solairua
Tel./Faxa: 943 88 90 96 - 20200 BEASAIN

koba tours
Kubako bidaietan espezializatuak!!
Elosegi, 17-behea 3
Tel.. 943889291 - Faxa: 943883971
E-mail: algoz@wanadoo.es
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

TROSKAETA
TABERNA
Zorionak Egunkaria !!
✆ 943 18 00 37
20211 ATAUN
San Martin (Gipuzkoa)

OLABERRIKO UDALA
Olaberriko Udalak zorionak ematen dizkio Egunkariari bere hamargarren urteurrenean
✆ 943 88 91 93 - 943 88 14 34 - Faxa: 943 88 91 93